



## IRAKAS-ESTRATEGIEN PROPOSAMENA

### KOKAPENA

Komeni da ikaslea leihotik gertu eta irakaslearen aurrean egotea. Horrela, atsedean hartzeko uneak izango ditu, eta ikasgela ebakutatuz gero, azkar eta arin ebakutu ahal izango da.

### BILTEGIA

Lasaitasunaren txoko gisa erabiliko da, eta honako elementu hauek izango ditu:

- *Altxorren kutxa*: ikasleak barruan aurkituko dituen objektu guztien artean bat aukeratu ahal izango du, eta, eskatuz gero, patioaren eta jantokiaren ondoren objektua aldatu ahal izango du (goma elastikoa, estresaren aurkako pilota, lasaitasunaren botila, objektu sensorialak...).
- *Jolas matematikoen eta irakurketa-idazketaren fitxak*: bere interesetatik eta gaitasun-mailatik abiatuta, hainbat jarduera osagarri eskainiko zaizkio, betiere lana amaitu ondoren.
- *Kuxina eta esterilla*: mugitzeko askatasun handiagoa izango du, eta zuzenean eragingo du bere egoeran.
- Hareazko erlojua: denbora kudeatzeko erabili ahal izango du, behar dituen zereginetan, bai eta lasaitasun-uneetan ere, irakasleak gainbegiratuta.

### EMOZIOEN SEMAFOROA

Ikasleek tailerren ordua erabiliko dute jarduera hau egiteko. Ikasle bakoitzak semaforo bat diseinatuko du, pixkanaka-pixkanaka autoerregulazioa lantzen laguntzeko. Horrela, egoera honetan daudenean:

- **Lasai**: semaforo berde bat izango dute mahai gainean.
- **Urduri**: anbarra erabiliko dute. Egoera horretan, hainbat estrategia erabili beharko dira ikasleen lasaitasunera itzultzeko (adibidez, lasaitasunaren txokoa, edo ura edatea).
- **Kontrol kanpo**: gorria jarriko dute mahai gainean. Muturreko eta ezohiko egoera denez esku hartzeko protokolo espezifikoan zehaztutako neurriak hartu beharko dira.

### BERDINEN ARTEKO TUTORETZAK

Ikaskideen arteko harreman positiboak bermatzeko, bikoteka, bata bestearen egoera emozionalari buruz galdetuko diote. Irakaslearen laguntzarekin, galderak egingo dituzte haien artean. Azkenik, pertsona helduak hausnarketa sustatuko du talde handian eta informazioa partekatuko du, giro natural eta normalizatu batean.

### ERREFORTSU POSITIBOA



CEIP Ntra Sra del Pilar HLHI

Pza Euskaltzaindia 1

48901 Barakaldo Bizkaia

Tfno: 944371725 / Fax: 944780886

Irakasleak mekanismo espezifikoak ezarriko ditu ikasleen jokabide positiboak indartzeko (adib. ClassDojo edo helduaren emozioaren eta ikasleen portaeraren arteko loturaren bat ezarri). Bigarren maila batean utziko dira alderdi negatiboak, alde batetik, jokabide positiboak ohikoagoak izan daitezen eta bestetik, ikasle batzuen estigma saihesteko helburuarekin.

### **ARDURAK**

Oro har, ikasleek hobeto erantzuten dute ekintza baten arduradun sentitzen direnean. Hori kontuan hartuta, komenigarritzat jotzen da honako ataza hauek esleitzea:

- Patrulla Berdeari lagundu eta gainbegiratzea.
- Atezaintzan materiala hartzea.

Zeregin horiek ikaskideren batekin egin beharko ditu berdinen arteko gizarte-harremanak sustatzeko. Era berean, aireztatzeko eta espazioa aldatzeko aukera emango dio, eduki berriak hobeto barneratzeko.